



Esp. kodea: 2017SAPL0006

Gaia: PLENOA 2017/07/11
Hasiera eguna: 2017/07/03

AKORDIOEN LABURPENA

Udal Plenoak, 2017ko uztailaren 11a egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela informatzen dut:

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Udal Plenoak, aho batez, 2017ko ekainaren 6a egindako bileraren akta onartu du.

2.- LBK; hainbat lanpostuen balorazioaren berrikuspenari buruzko proposamena.

Osoko bilkurak aho batez erabaki du behean aipatzen diren lanpostuen balorazioak finkatzea, modu honetan:

Kod.	Lanpostua	Plaza kopurua	Sailkapen taldea	Destino osagarria (Puntuak)	Destino osagarria (Maila)	Espezifik o osagarria (Puntuak)	Udalhitz maila
77	Udaltzain-buru Ofiziala	1	C1	1.025	22	1.315	19
167	Lehen Udaltzainen Koordinatzailea / Ofizial-ondokoa	1	C1	750	22	1.055	16,5
12	Lan Arriskuen Prebentzio Teknikaria	1	A2	800	23	925	18
8	Ordenantza (mandataria)	1	LT (E)	325	16	640	8,5

3.- Martxoaren 31an 2017 urteko aurrekontuaren egoeraren berri ematea.

Osoko Bilkurak Ogasun, Diruzaintza eta Ondare informazio batzordeak emandako informazioaren berri hartu du.

4.- TGBak 2017eko 1. hiru hilabeteen onartutako kreditu aldaketen espedienteei buruzko informazioa.

Osoko Bilkurak Ogasun, Diruzaintza eta Ondare informazio batzordeak emandako informazioaren berri hartu du.

5.- Arrasateko Udala eta Garagartzako Ortu Ekologikoen Elkartearen arteko hitzarmena aldatzeko proposamena.

Osoko Bilkurak aho batez onartu du Arrasateko Udala eta Garagartzako Ortu Ekologikoen Elkartearen arteko hitzarmena aldatzea.

6.- A.E. 60.- HONDARRIBIA KALEA esparruko Hiri Antolamenduaren Plan Bereziari



Esp. kodea: 2017SAPL0006

Gaia: PLENOA 2017/07/11
Hasiera eguna: 2017/07/03

buruz egin diren alegazioei erantzuna eman eta agiria behin betikoz onartzea

Osoko Bilkurak, aldeko 11 boto (EAJ-PNV eta PSE-EE), kontrako 2 (Baleike) eta 8 abstentziorekin (EH Bildu eta Irabazi) besteak beste, onartu du:

I.- Erantzutea alegazioei, eginak AE 60.- Hondarribia kalearen eremuaren hiri antolamenduko plan bereziaren agiriaren erakustaldian, diktamen honetako 2. Eranskinean jasotako hitzekin, alegazio horietako batzuk onartzearen ondorioz erantzun horretatik datozen aldaketekin.

II.- Behin betiko onartzea “AE 60.- Hondarribia kalea eremuaren hiri antolamenduko plan berezia”ren agiria, sartutako aldaketekin osatua, datozenak, batetik, alegazio batzuk onartu direlako, eta, bestetik, antolamenduari buruz egindako azterketaren konklusioetatik (aparkalekuak, kalerako sarbideak eta abar).

7.- EH Bildu, Baleike eta Irabazi udal taldeek aurkeztutako mozioa, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta prestazioaren ingurukoa

Mozioa ez da onartua izan, aldeko 10 boto (EH Bildu, Baleike eta Irabazi) eta kontrako 11 botorekin (EAJ-PNV eta PSE-EE)

8.- Irabazi udal taldeak aurkeztutako mozioa, saltzaile ibiltari profesionalen inguruko egoerari buruz

Mozioa erretiratu izan da, aurkeztutakoak mahai gainean uztea proposatu du.

9.- Irabazi udal taldeak aurkeztutako mozioa, gizarte eta ingurumen klausulak kontratazio publikora gehitzeari buruz

Mozioa ez da onartua izan, aldeko 10 boto (EH Bildu, Baleike eta Irabazi) eta kontrako 11 botorekin (EAJ-PNV eta PSE-EE).

10.- EH-Bilduk aurkeztutako mozioa, Etxez etxeko laquntza zerbitzua hobetzearen aldekoa

Mozioa ez da onartua izan, aldeko 10 boto (EH Bildu, Baleike eta Irabazi) eta kontrako 11 botorekin (EAJ-PNV eta PSE-EE)

Arrasaten, 2017ko uztailaren 11an

IDAZKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta